



**ALDERDIAREN 2007-2011KO
HAUTESKUNDE PROGRAMA**



Getxo egin behar baita

Asko egin baitugu, baina horrek orain ez du garrantzirik.

Gehiago egin behar baita, hortxe baitago gakoa.

Bertan bizi nahi duzu-eta. Bertan lan egin nahi duzu-eta. Zeure bizitza bertan egiteko aukerak izan nahi dituzu-eta. Zeuk eskatzen duzuna baita.

Hori dena lor dezazun nahi dugu, horixe da gure helburua eta horren alde jarraituko dugu lanean. Getxo egin, egin behar baita, Getxok aurrera eta hobera egin dezan beharrezko ekimenak sustatu behar baitira. Horixe da geure proiektua, horixe geure konpromisoa.

Denon artean Getxon hauek eraikitze egingo dugu lan:

- Bertako alderdi ederrez goza aukera izatea: pasealekuak, hondartzak, espazio publikoak, hirigintza harmoniatsu eta orekatua. Azken batean, Getxo atsegina, praktikoago eta erosoagoa.
- Etxebizitza arazoari ekimenez eta politika eraginkorren bidez aurre egitea, eta horrela, gure gazteek duten oinarrizko beharretako bati erantzuna ematea.
- Aisialdia, kultura, eta kirola eskaintza erakargarria, parte hartzekoa, kalitate onekoa eta denontzako izatea, eta gizakiak garen aldetik, horren bidez gozatzea eta aberastea.
- Jarduera ekonomikoak bultzatzea eta sustatzea, horrela, getxoztarrentzako aberastasuna eta lana ekartzeko eta sortzeko.
- Solidaritatea egotea, bai barrukoa, getxoztarren euren artean, bai kanpokoa, garatzeko bidean dauden herrialdeekiko nahiz laguntza behar duten pertsona eta taldeekiko. Izan dadila hori gure herriaren ezaugarri nabarmenetako bat.
- Gizon eta emakumeen arteko berdintasun erreala bultzatzeko eta sendi barruan familia eta lan-bizitza osagarriak izateko politikak ekimenez sustatzea.
- Bakearen aldeko eta herritarren arteko bizikidetzarako kultura sustatzea eta sendotzea. Giza-eskubideak errespetatzearen aldeko jarrera aktiboa erakustea.
- Getxoztar bakoitzak euskaraz ere bizitzeko aukera eduki dezan, eta denok eduki dezagun euskal kulturako adierazpen guztiez gozatzeko eta bertan parte hartzeko ahalbidea.
- Udalerriko ume eta gazteei zuzendutako politika espezifikoak garatu eta bultzatu daitezten, euren giza garapena hobea izateko.
- Iraunkortasunaren aldeko ingurumen politikak ezar daitezela, Aalborg eta Agenda 21 Programako konpromisoek jarritako marko orokorraren arabera.
- Udalaren kudeaketa bikaintasun eredua jarraitzea herritarrei eskaintzen zazkien zerbitzuak hobetzeko.

- Hiri-segurtasuna hobetzeko neurri egokiak ezar daitezzen eta horren aldeko lana egin dadin.

Azken batean, ekimen handiko udalerrri berritzailea, aktiboa eta solidarioa nahi dugu, Euskadiko kulturari eta nortasunean sustraituko Getxo bizi eta dinamikoa, aldi berean mundura begira eta kanpoko jendearekiko irekia dena. Hiritarrak harro sentitzeko moduko udalerrria. XXI. mendearen hasieran, bertako hiritarren behar eta eskakizunei erantzuten dakien Getxo hiria nahi dugu.

Zelan kudeatuko dugu Getxo?

EAJrentzat xede orokor hori, hiri eredu hori definitzea bezain garrantzitsua da hori lortzeko lana nola egin behar dugun erabakitzea.

Alde horretatik, EAJk hiritarrei zerbitzuak ematearen alde egiten du argi eta garbi, baina lan hori hiritarrekin eurekin egitearen alde ere bai. Ez dugu nahi Getxo "ikusita eta kontatu" hiria izatea, baizik eta Getxo eraikitzen hiritarrak partaide izango dituen hiria izatea

Horretarako, beharrezko enpatia eta elkar-entzuketara gaitasunaz gain, ezinbestekoa da ateak irekita uzten dituen jarrera bat herritarren elkarrekiko harremanei, talde ezberdinekin (gurasoak, emakumeak, gazteak, nagusiak etab.), elkarteekin eta udalerriko eragile sozial guztiekin. Eta hori lortzeko, dagozkion komunikazioa eta hiri-partaidetza formulak ahalbidetu behar dira.

Nahi dugu gure herritarren gure proiektu eta politiketan lankide izatea.

Azken batean, guretzat udal politika geure herriaren eguneroko eraikitze-lan estrategikoa da, hiritarrentzat egin behar dena baina hiritarrekin ere bai. Eta apaltasunez, hurbiltasunez eta arreta handiz egingo dugu.

Zeintzuk dira kontuan hartuko ditugun balioak?

Pertsonak dira gure proiektuaren eta kudeaketaren muina. Premisa hori kontuan hartuta, hauexek dira geure balioak:

- Zintzotasuna eta kudeaketan gardentasuna.
- Hurbiltasuna eta apaltasuna.
- Solidaritatea
- Geure herritarrekiko zerbitzu-jarrera.
- Parte-hartzea
- Begirunea.
- Lankidetasuna
- Hiri-konpromisoa
- Aitzindaritza.
- Eraginkortasuna eta berritzeko gaitasuna.



Egin behar da (Proposamenak)

HIRIGINTZA


- 1** Traba arkitektonikoak kentzeko irisgarritasun eta mugigarritasun plana ezartzea: azken legegaldian garatutako neurriak osatu (Ereagako igogailua, Bidezabaleko arrapala mekanikoak): Igogailua eta eskailera mekanikoak Villamonte plazan, Salsidun arrapala mekanikoak jarri Algortako herri - gunera heltzeko, eta Aiboan ere bai, metro geltokia lotuz, alde batetik; bestetik, guztiontzako espaloiak egokitu, behera eginez eta zabalduz, etab.
- 2** Herritarrek gozatzeko oinezkoentzako gunek berriak: San Nikolas plaza Andres Cortina eta Bihotz Alai plazarekin elkartu
- 3** Hirigune nagusietan hiritarrentzako ibiltokiak eta espazio estaliak aztertu. Horrela neguan ere erabili, aprobetxatu eta dinamizatuko ditugu geure auzoak.
- 4** Bihotz Alai plazako berritze lanei buruzko azterlana egin eta horiek burutzea, gunea dinamizatzeke kolunpioak, elkartzeke lekuak eta negurako gunek estaliak jarritz.
- 5** Neguko ostalari terraza estaliak ezartzea udalerriko gunek estrategikoetan, gure auzoak dinamizatzeke.
- 6** Sarrenebarri eta Alango kaleak elkartzeke proiektua aztertu eta ahal bada, egitea. Horrela, Algortako herri-gunerako sarbide berri bat egingo litzateke eta horrek trafikoa berrantolatzeko aukera ekarriko luke alde batetik, eta bestetik, herritarrek gozatzeko eta aprobetxatzeko espazio berriak egiteke aukera.
- 7** Maidaganen metroa lurperatzea (Bizkaiko Garraio Partzuergoa). Horrek Andra Mari auzoari azaleke espazio libre publikoak ekarriko dizkio, atsedenerako eta aisialdirako gunek egiteke. Ibarbengoako metrogetoki berriaren antolaketa.
- 8** Bizkaiko Zubiaren eta Barinatxe hondartzaren arteke oinezkoentzako bidea-bidegorria antolatu eta egokitzea.

- 9** Bidegorri urbanoen bidez txirrindulez ibiltzeko ibilbide egingarri eta praktikoak jartzea, auzoetan zehar ibili ahal izateko; euren arteko konexioa egitea. Horretarako hornidura espezifikoa egin (txirrindula-aparkalekua) leku estrategikoetan hala nola metro geltokiak, plazak etab. Arreta berezia udal institutuekiko konexioetan.
- 10** Erromoko-Areeta geltokiak eta alboko EJren lurzoruak (egungo aparkalekua) osatzen duten espazioa berrantolatzea, eta bertan udal zerbitzuetarako eraikin berria eraikitzea (Kultur Etxea, Gaztelekua etab.), kultura ekimenak eta elkarreentzako guneak garatuz, udalerriko espazio estrategiko horri behin betiko konponbide urbanistiko egokia ematearren.
- 11** Parke publikoetan (Malakate-Maidagan, Usategi, Zugatzarte etb.) berritze ea moldatze lanak egitea.
- 12** Aparkatzeko leku falta arintzeko neurri zehatzak hartzea:
 - Algortako erdigunean trafikoa arintzeko, Villamonten lurpeko aparkalekua jarri.
 - Erromoko trafikoa arintzeko, Gobela kiroldegian alokatzeko plazak eta txandakako plazak jarri.
 - Santa Anako BOEetan lurpeko aparkaleku berria egin, auzoan trafikoa arintzeko.
 - Andra Mariko Ibarbengoa metro-geltokian aparkamendu gomendatuzko sistema ezarri (Bizkaiko Foru Aldundia). Horrela, kanpotik datozen ibilgailuek ez dute gure auzoen erdigunea iritsi beharrik izango udalerrian sartzeko.
 - Algorta eta Andra Marin lurpeko aparkalekuak ezartzeko proposamen berriak aztertzea.
 - Gure udalerrian bidegintzaz eta trafikoaz azterlan berriak egin eta hobekuntza lanak egiteko neurri egokiak hartu.
- 13** Gure auzoak ondo zainduta edukitzea (kale eta espazio publikoak garbi, errepideak asfaltatuta, hiri-hornidurak prest, pintadak txukunduta etab.)
- 14** Gure hondartzak eta pasealekuak babestu eta zaintzea.
- 15** Gobela ibaia ubideratzea (Eusko Jaurlaritza), gure auzoetan uholdeak egoteko arriskua saihesteko.
- 16** Alangon anbulatorio berria irekitzea (Eusko jaurlaritza), Algortako hiritarren zerbitzurako.



17 Getxo-Andra Mari auzoko garapen urbanistikorako EAJk duen proiektua. **Gure proposamenaren ildo nagusiak hauexek dira:**

- Andra Marirako garapen harmoniatsu, orekatu, mailakakoa eta iraunkorra.
- Auzo eredu hau: ondo uztartuta agertzen dira bizitegi erabilera, merkataritza, zerbitzuen eta beste lanbideen jarduera ekonomikoa, beharrezko hornidura publikoak, berdeguneak eta aisialdirako tokiak. Hiritarren giza garapen egokirako behar eta nahi diren baldintzak eskaintzen duen auzo bizi bat, azken batean.



- Eraikin-tipologia hauxe izango da: Etxe uharte irekia, behea + 3/4, batez besteko. Gehiagokoa lbarbengoa metro geltoki berriaren inguruan.
- Hazkunde mugatua olio orbanaren moduan. Lurzoruaren ustiapen handiagoa eta egokiagoa eta hirigintza garapenerako leku gutxiago betetzea. Muga: Zientzoetxeko errepidea eta itsasertzearen arteko espazioa garapenaren kanpo geldituko delarik
- Udalerrian dagoen eskaera errealari eratzuten dion etxebizitza eskaintza, bai babespen ofizialekoak bai tasatuak.
- Ingurumen-inpaktuari buruzko ikerketa egitea. Horrek indarrean dagoen legedian ezarrita dauden ingurumen-irizpideak bermatuko ditu.
- Udallerriaren interes orokorraren eta Andra Mariko garapen urbanistikoak eragindako auzokideen eskubide nahiz interesen arteko oreka lortzea da asmoa eta beraz, hori ahalbideratuko duen formula tekniko-juridikoak ezarri behar dira.
- Eragile sozialak eta eragindako auzokideak elkarrekiko harremanetan egon behar dira uneoro, eta horretarako, parte hartzeko formula egokiak jarri behar dira abian, Getxo-Andra Marirako planeamendu berria egiteko prozesua izan bitartean.
- Jarduera ekonomiko aurreratuen parkea Martiturrin.

ETXEBIZITZA

18 **Etxebizitza lortzeko plan berezia** egitea. Horren bidez, legealdian arlo honetan burutuko diren ekintzak aztertu, zehaztu eta epetan banatuko dira. Horren denaren helburuak hauexek dira:

- Etxebizitza babestuak (BOE, sozialak eta etxebizitza tasatuak) erakitzen jarraitzeko neurri eraginkorrak sustatzea. Horiek guztiak, lurzoru hiritarrean emango dira lurrazal-eskubideaz
- BOEak edota etxebizitza tasatuak lortzeko ezarri diren baldintzak betetzen direla eta bere horretan jarraitzen dutela egiaztatzeko ikusketa eta kontrol sistemak bultzatzea.
- Gazteentzako eta egoera txarretan bizi diren pertsonentzako etxebizitza lortzeko aukera ahalbideratzea. (diru-laguntza zuzenak, etab.)
- Izaera positiboko neurri fiskalak ezarri, udalerrian hutsik dauden etxebizitzak alokatzeko merkatuan egon daitezzen bultzatzearen.
- Foru eta nazio erakundeekin bete-betean parte hartu, etxebizitza lortzearen aldeko politikak bultzatzeko.



- 19** Etxebizitza babestuen (BOE, sozial eta etxebizitza tasatua) aldeko erabaki sendoa hartzea, Getxo - Andra Mari auzorako aurreikusita dagoen udal planeamendua diseinatzeko eta betetzeko unean, udalerrian dauden benetako beharrei aurre egitearren.

AISIALDIA ETA KULTURA

- 20** Algortan Getxo Antzokia berria. Azpiegitura berri hori Getxok bere kultura programazio izugarria zabaltzeko merezi eta behar duena izango da. Bertan balio anitzeko espazioak eta Musika eskolako beste ordezkari bat egongo dira.
- 21** Kafe Antzokia. (Proiektua eta, onartuz gero, abian jartzea). Aisialdiaren eta artearen inguruan musikarako, elkartzeko eta giro gazte euskalduna sortzeko espazioa.
- 22** Geltokiko Plazan udal eraikina egin (Areeta-Erromo Aparkalekua). Balio anitzeko eraikina jarduera kulturalak garatzeko (Kultur Etxea), elkarte-entzako lokalak edukitzeko, Gaztelekurako eta orokorrean, udal zerbitzuetarako. Horrek alde horretan jarduera-gune bat sortuko du eta auzo horien bien arteko elkargunea eratuko.
- 23** Santa Eugenia eskoletako erabileraren koordinazioa berria egitea, Erromoko Nagusien Etxea eta Erromo-Areetako Geltokiko Plazako udal eraikin berria kontuan hartuta.
- 24** Getxoko musika jaialdi eskaintza izugarriari (Blues, Jazz, Hananerak, Folk eta Kantuketan) bultzada berria ematea.
- 25** "Getxo Sound Festival" sortzea, pop, rock musika getxoztarra bultzatzeko eta sustatzeko ekitaldien bidez -bai arrakasta izan duten taldeenak, baita etorkizunean arrakasta izan dezaketen taldeena ere-.
- 26** Arrakasta duten ekimen batzuk -Getxoarte, Komiki Azoka- bultzatzeko proposamen berriak sortzea, auzoetan zehar zabalduz eta hiritarren, ostalarien,merkatarien eta abarren parte hartzea bilatuz.
- 27** Torrenen erakusketa aretoa irekitzea, artista eta erakusketa garrantzitsuetarako.

- 28** "Getxo zine plato" programa sortzea eta sustatzea, filmen, musika bideoen, iragarkien eta abarren bidez udalerrria erakusteko eta sustatzeko.
- 29** Ostalarien sektorearekin batera, kulturarako espazio berriak bultzatzea, formatu txikiko jarduerak abian jartzeko, hala nola kontzertu akustikoak, umore saioak, kafe antzerkia etab.
- 30** Liburutegiak: Gaztelekua oraindik martxan ez dagoen auzoetan, neguan ordutegi zabalagoa eskaintzea, nerabeek erabiltzeko.
- 31** Udalerriko sormenezko ekimen, ekimen kultural eta artistikoei -dantza taldeak, antzerki taldeak, abesbatzak, dantza, zine eta bertsolari eskolak etab.- babesa, laguntza eta eurekin lan egiteko eskaintza ematea.
- 32** Artearen arlo ezberdinetan, sormenezko ekimenen - partikularrak nahiz kolektiboak- sorrera eta garapena eragin, bultzatu eta sustatzea, udalerriri etekina ekar diezaioten.
- 33** Zine areto finkoa: zine kluba eta zinema paradisia, Areetako Musika eskolako antzerkitxoan.
- 34** Andrés Isasi Udal Musika Eskolako kudeaketaren hobekuntza bultzatzea.
- 35** Angelu-Angletekin eta Goierriko udalekin egindako adiskidetasun akordioa sendotzea, anaitasunaren alde, euskaldunon arteko elkarreragina eta ezagutza bultzatzeko, arlootako jardueren bidez: kirolak, kultura, arte, elkarren arteko trukeak etab.

KIROLAK (Getxoko Kirol Plana-azpiegiturak eta programak)

- 36** Kirol azpiegiturak (Getxo Kirolak) berritzeko prozesuari azken bultzada ematea: atletismorako pista berria, rugby zelaia, paddlerako instalazio estaliak etab.
- 37** Kirol portu berrian arraunerako eta belarako pabiloi berriak amaitzeaz gain erabiltzen hastea, eta Bela eskola nahiz Getxo Arraun Taldea jartzea.
- 38** Kirol azpiegitura berri hauen azterlana egitea eta egokia izanez gero, martxan jartzea: skaterako pista estalia, BTT zentroa eta Bike Park.



- 39** Udalerrian dauden kirol modalitate anitzen klubei laguntzea eta eurekin batera lan egitea. Horretarako kontuan hartuko dira hainbat irizpide, hala nola klubaren kompetizio-maila, bere eragin soziala etab.
- 40** Emakume kirolari eta gaitasun urrituko pertsonen egindakoari arreta berezia jartzea
- 41** Udal kiroldegia (Getxo Kirolak) bultzatzea, familiak elkartzeko eta gozatzeko lekuak izateko (Fadurako kafetegia berriztatzea eta martxan jartzea, Fadurako lehengo garagardotegian dagoen espazioa martxan jarri eta erabiltzea etab.)
- 42** Pertsona nagusien eta gaitasun urritukoentzako kirol programak bultzatzea.
- 43** Eskola kirol programa: (Kirolanitza) Udalerriko GE, eskola eta kirol klubekin batera lankidetzan. Getxo Marka programa bultzatzea (Eskola kirolaren eta federatuen artean).
- 44** Getxo Kirolak erakundeko zerbitzu-emate tasen sistema aztertzea eta berrikustea, gaur egungo autofinantzatze maila mantenduz.
- 45** Getxo-Sopelako kostaldeko bidegorria erabiltzen hastea.
- 46** Getxo-Andra Mari: Beharrak aztertzea, azpiegiturei eta kirol programei dagokienez, gune horretan aurreikusitako hiri-hazkunde berria kontutan hartuta. Gaurko polikiroldegiko instalazioen eta erabilpenen optimizazioa.

EKONOMIA SUSTAPENA

- 47** Udalerriko Merkataritza eta Ostalaritza sektoreari laguntza ematea.
 - PERCO eguneratzea eta horretan sartuta dauden gizarte nahiz erakunde eragileek ezartzeko neurri zehatzak definitzea, udalerriko merkataritza jarduerak bultzatzearen.
 - Ekimen zehatzak sustatzea eta bultzatzea, gure auzoetako hiri-esparruetan aktibitate handiagoa garatzea eragin dezaten, dinamismo ekonomikoa handiagoa izatearren.
 - Ekitaldiak (kultura, kirol, arte eta abar...) bultzatzea, sustatzea eta antolatzea, udalerrira bisitariak etor daitezen eta horrela gure merkatariek/ostalariak bezeroak eskura ditzaten eta hauek udalerrian aberastasuna sor ditzaten.

- 48** Getxoko Udaleko Enplegurako eta Garapen ekonomikorako zentroa-Behargintzan garatutako politikak bultzatzea, foru, nazio, estatu eta europar erakundeekin lankidetzan:
- Enpresei zerbitzuak ematea (Enpresa harrera eta informazioa, kudeaketa aholkularitza, etab.)
 - Autoenplegurako zerbitzuak ematea (egun eratuta dagoen autoenplegu ibilbidea bultzatzea)
 - Enplegurako eta sustapen ekonomikorako azpiegiturak jartzea (Enpresa zentroa Zubilleta poligonoan).
 - Enpresen eta langabetuen arteko lan bitartekaritza egitea.
 - Langabetuentzako formakuntza, etab.
- 49** Udalerriko sustapen ekonomikoan sartuta dauden gizarte eragileekin eta erakundeei laguntza ematea eta eurekin batera etengabe lanean aritzea (Getxoko Enpresak eta Merkataritza, Bilboko Merkataritza Ganberako Ordezkaritza etab.)
- 50** Martiturriko Jarduera Ekonomiko Aurreratuen Parke berria definitzea eta bultzatzea.
- 51** Gure udalerrian aktibitate ekonomikoa areagotzearen aldeko ekimen berriei buruzko bidegarritasun-azterlana egitea (Areetako Merkatuan Jarduera ekonomikoen zentro berria, Portu Zaharreko zabalgunerako proposamen berrien azterlana, Bake Eder etab.)
- 52** Getxoko (Andra Mari) hiri-garapen berrian hiri eredu hau ezartzea: bizitegia eta jarduera ekonomikoak (merkataritza, ostalaritza, hiru-garren sektorea, zerbitzuak, lanbide liberalak etab.) uztartzen dituen, lanpostuak daudeneko auzo bizi eta dinamikoa osatzea helburu duena.
- 53** Udalerrian turismo jarduerak bultzatzea:
- Getxoko Turismo Plan Estrategikoa eguneratzea eta garatzea.
 - Bizkaiko Zubia Getxon sustatzea: zubia interes-gai egin, bere garaian girotu eta gizadiaren ondare den aldetik, horri etekinak atera.
 - Ekimen berrien azterlanak: Bizkaiko Zubiaren ondoan dagoen pasealekuan zehar "Artearen Pasealekua " sortzea.
 - Algortako Portu Zaharra bultzatzea. Plan berezia.
 - Udal Aquariuma bultzatzea.
 - Getxon kruzero-turismorako programa bultzatzea.
 - Galeako Gotorlekuan kalitatezko zaharberritze zerbitzua martxan jartzea.



- Turismo bulego berria eta Ingurugiroa ezagutzeko zentro berria jar-
tzea. Bertan zerbitzu berriak eta instalazio hobeak egitea Ereaga
hondartzan, "La Terraza" eraikin berrian.
- Udalerriaren hiriguneetan turismo informazioa ematea,
Hiritarrentzako arreta bulegoetan areagotuko diren zerbitzuen
bidez.
- Ekitaldi erakargarri eta mediatikoak antolatzea foru eta estatu maila-
lako erakundeekin batera lankidetzan, Getxo Europa eta mundu maila-
lan ikusgai egon dadin (2008ko Joko Nautiko Atlantikoak etab.)
- Getxorako interesgarri diren beste hiri edota herri batzuekin anaita-
sun eta elkartruke programak garatzea, hainbat irizpide kontuan
hartuta: kultura (Iparralde), hezkuntza, hizkuntza (mundu anglosaxoi
europarra) edo turismoa.
- Udalerriko ondare arkitektonikoari etekin eta ustiapena ateratzea.
(Ibilbide arkitektonikoak etab.)
- Getxoko jaialdi handien programazioa bultzatu eta garatzea, eta
udalerrira bisitak nahiz arreta dakarzkieten beste ekimen batzuen
ere bai, adibidez Getxoarte edo Komikiaren Aretoa.
- Itsasertzeko Getxo sustatzea.
- Parte -hartze eta sustatzea ekimen bateratuak, Bizkaia Euskal
Kostaldea, besteak beste.
- Udalerrian kalitatezko ostalaritza - eskaintza bultzatzea. (Punta
Begoñako hotel berria martxan jartzea).


SOLIDARITATEA ETA ARRETA, LAGUNTZA BEHAR DUTEN TALDEEI

- 54** Gure nagusientzat instalazio eta zerbitzu gehiago eta hobeak jartzea:
- Erromoko Nagusien Etxea handitzeko lanak egitea: instalazio gehia-
go eta hobeak, balio anitzeko espazioak etab.
 - Orduña mendateko lokal berriak aprobetxatuz, Andra Mariko
Nagusien Etxea handitzeko lanak egitea.
 - Udal egoitzan eguneko zentroa jartzea, Bizkaiko Foru Aldundiaren
elkarlanarekin, Udalerriko benetako beharrak eta dagoeneko daukan
eskaintza kontuan hartuta.
 - Getxoko Udal Egoitzak ematen duen zerbitzua hobetzea eta bultza-
tzea, birmoldatu berri eta eguneratuta baitago.
 - Gure nagusiei bizitza-kalitate hobea ematea, hauen bidez: progra-
mak (kirolak, kultura etab.), baliabideak (tutelapeko pisuak, etxerako
laguntza etab.) eta beste laguntza espezifikoak.



55 Gure auzoetan Oinarrizko Gizarte zerbitzuak bultzatu eta sustatzea.

56 Laguntza sozialerako programak bultzatzea: etxerako laguntza, larrialdi sozialak, aldizkako laguntza ekonomikoak, drogamenpekotasunerako prebentzio komunitarioa, familia eta nerabeen arteko bitartekaritza-programa, desaban-





taila sozialak dituzten pertsonentzako eta baztertuta dauden nahiz egoteko arriskuan daudenentzako prestakuntza eta enplegu programak etab.

- 57** Boluntarioen lana sustatu, euri lagundu eta euren lanari onespina egitea, Gizarte zerbitzuekin batera esparru hauetan esku hartzen duten erakundeen bidez: familia, hirugarren adina, gizarte-bazterketa, immigrazioa, kultura-aniztasuna, aukera berdintasuna, gaixotasunak eta ezgaitasunak. (Boluntarioen arteko topaketak Getxon)
- 58** Eusko Jaurlaritzarekin batera lankidetzan, beste herrialde, kultura eta ohiturak dituzten getxoztarrentzako programak eta ekimenak garatzea, elkarbizitza eta integrazioak sustatzeko.
- 59** Laguntza behar duten herrialdeetako pertsonen edota garatzeko bidean daudenetakoen egoera hobetzearen alde Getxok konpromisoa hartzeari bultzada sendoa ematea:
- Aurrekontuaren 0,7ren aldeko konpromisoa
 - Garatzeko bidean dauden herrialdeentzako proiektuak egitea, sentsibilizazioa zabaltzea eta larrialdi egoerei aurre egiteko diru laguntzak ematea.
 - GKEn, parrokien eta ekimen getxoztarren aldeko eta eurekin baterako lana egitea.
 - Saharauekiko arreta berezia edukitzea.
 - Euskal Fondoan (Udalerrri kooperazteen elkarte) parte hartzea.
- 60** Homosexualen, lesbianen eta transexualen egoera normalizatzeko prozesuaren aldeko ekimenak eta laguntza sortzea (Ezkontzak, Zinegoak Getxon, sentsibilizazioa eta informazioa zabaltzeko programak etab.)

EMAKUMEEN ETA GIZONEN ARTEKO AUKERA BERDINTASUNA ETA FAMILIEN LANBIZITZAREN ETA PROFESIO-BIZITZAREN ARTEKO BATERAGARRITASUNA

- 61** Getxo udalerrian Emakumeen eta gizonen arteko berdintasunerako Plana II (2006-2009) garatzea. Plan hori politika tresna integrala da, parte hartzekoa eta guztientzakoa, eta bere puntu nagusiak hauexek dira:
- Udal informazioan eta kudeaketan berdintasuna egon.
 - Berdintasunaren aldeko balioak eta jarrerak transmititu.
 - Bizitza ekonomikoa.
 - Adiskidetzea eta Erantzukizun banaketa.

- Erabakiak hartzeko orduan, jabeakuntza eta parte hartu.
- Emakumeen kontrako bortxakeria.
- Kultura-aniztasuna eta lankidetzatza.
- Hirigintza eta Ingurumena.
- Osasuna eta bizitza-kalitatea.
- Kultura eta kirola.

62 Egindakoaren eta izandako emaitzen ebaluazioa egitea, eta berdintasunerako plan berria egiteko prozesua abian jartzea eta garatzea.

63 Udalerriko emakumeen elkarteek egindako lanari laguntza eta onespere ematea eta eurekin batera lan egitea.

64 Inazio deunaren eskola publikoko instalazioetan 0-3 urte bitarteko umeentzat Haurreskola gelak irekitzea.

65 Udalerrian gure umeentzako ekintza hauek antolatzeko ekimen eta elkarteek laguntza eta babes ematea: jarduerak, programak, udaleku-egonaldiak eta aktibitateak oporretan (Bapiruke, Scout taldeak, kirol taldeak etab.)

66 Getxo Kirolak eta Umeentzako Hezkuntza sailak ume eta gazteentzat udan antolatutako programak, ikastaroak eta jarduerak bultzatzea

67 Kultur Etxeak umeentzat garatutako aisialdi ekimenak (Umeentzako zinea, Letrak oporretan etab.) bultzatzea.

68 Udalaren tasa eta prezio publikoetan familia ugarien egoeraren alde ezarri diren politikak aztertu eta hobetzea. Horretarako bidezkoak diren irizpideak hartuko dira kontuan.

BAKERAKO ETA BIZIKIDETARAKO KULTURA. GIZA ESKUBIDEAK BETETZEAREN ALDEKO JARRERA ERAGINKORRA.

69 Bitartekaritza komunitarioa eta bakerako kultura sustatzea, 2005-06an garatutako ekimenen eta beste batzuen bidez (ikastaroak, tailerrak, Bake-Kultura eta Gatazken Eraldakuntzari buruzko Gida etab.)

70 Gure herriaren bakegintzaren eta bizikidetzaren alde Eusko Jaurilaritzak dituen ekimenetan gogotsu lan egitea eta parte hartzea.



- 71** Gure udal ordezkari politikoak ezberdinak direnen arteko bizikidetzaren aldeko konpromiso eraginkorra egitea, Udaletxean giro politiko hobea izan dadin eta ekintza politikoaren formula amorrua izan ez dadin.

EUSKARA ETA EUSKAL KULTURA.

- 72** **Getxoko Euskara Biziberritzeko Plan berria**_egitea eta garatzea, alde aurretik parte-hartze prozesua eginez:
- Erakundeen aldetik: Alde batetik, Udala euskaldunizatzeko beste bultzada bat ematea, langileen eta korporatiboen euren gaitasuna hobetzeko laguntzen eta erraztasunen bidez. Horrela hiritarrari emandako arreta euskaraz ere bermatzen da. Bestetik, erakundearen paisaia linguistikoa, espazioak eta zerbitzu publikoak egokitzea.
 - Gizartearen aldetik: bitzita sozial getxoztarreko eragile sozialen inplikazioa lortzea, euren esparruan (merkataritza, ostalaritza, kirolak, kultura, aisialdia etab.) euskara erabiltzearen alde egin dezaten, horretarako beharrezko neurri egokiak ezarriz (dinamizatzaileak, paisaia linguistikoa egokitzeko dirulaguntzak, ikasteko laguntzak, itzultzeko eta aurkezpenak euskaraz egiteko zerbitzuak etab.). Euskara ikasi, erabili eta heziketa euskaraz egitearen aldeko sentsibilizazio kanpainak garatzea.
 - Indibiduoaren eta kolektiboaren aldetik: Gure hizkuntzaren normalizatorako sektore estrategikoei (merkataria, gurasoak, aisialdiko begiraleak haurtzaindegiko zaindaria etab.) diru-laguntzak eta Euskaltegiko matrikula ordaintzea.
 - Parte hartzeari dagokionez, Euskararen aholkularitza batzordeari bultzada berri bat eman.
 - Beste kultura eta hizkuntza batzuk dituzten herrialdeetatik datozen getxoztar berrien artean, gure hizkuntzaren normalizazioa dela-eta sortu den egoerari neurri zehatz eta eraginkorren bidez aurre eginez.
 - Euskararen erabileraren aldeko inplikazioa bilatzea, Getxoko herritarrengan eragina daukaten instituzioetan nahiz eta bere eskumenak udalaren esparruan ez egon.
- 73** Gure udalerrian, esparru anitzetan (kultura, hizkuntza, folklore, musika, hedabideak, bertsolaritza, ume eta gazteen astialdia, etab.) euskara normalizatzeko prozesuaren eta euskal kultura nahiz identitatearen alde diharduten ekimen eta elkarteei laguntza, bultzada eta onospena ematea.

- 74** Udal euskaltegiaren kudeaketa eraginkorrago eta hobea bultzatzea.
- 75** Euskadin, mundu artistikoan (kultura, sormena, musika, zinea, antzerkia etab.) euskaraz sortzen eta garatzen diren kalitatezko ekimenei laguntza ematea. Irizpide horrez gain, Getxoko programazio kulturala egiteko ezartzen direnak hartuko dira kontuan.
- 76** Gure herriko nortasun, ohitura eta tradizioak zaintzearen eta bultzatzearen aldeko laguntza ematea, eta helburu horrekin (Olentzero, Agate deuna, Inauteriak, jaiak etab.) lan egiten duten ekimen eta elkarrekin getxoiztarrei ere bai.

INGURUMENA (Aalborg-eko eta Agenda 21 programako konpromisoak)

- 77** Udal eskumenei dagokienez, 2003-07 legealdirako Ingurumena Foroak ezarri zituen puntu estrategikoak garatzea. Gainerakoari dagokionez, erantzukizuna duten erakunde eta eragileen inplikazioa lortzea. 21 Agenda Lokala:
 - Udalerriko balio naturalak, biodibertsitatea eta paisaia zaintzea.
 - Udalerriarren hobekuntza urbanistikoa sustatzea.
 - Mugigarritasun iraunkorra eta garraio publikoa bultzatzea.
 - Ur-hornidurarako kudeaketa optimizatzea eta ura zentzuz gasatzea.
 - Hiri-hondakinen birziklapena bultzatzea eta sustatzea.
 - Udalaren energia-kudeaketa optimizatzea.
 - Udalak airearen kalitatea kontrolatzeko egiten duen lana hobetzea.
 - Udalak kalitate akustikoa kontrolatzeko egiten dituen jarduerak hobetzea.
 - Udal kudeaketan, ingurumen eta iraunkortasunerako irizpideak kontuan hartzea.
 - Udal kudeaketan eta Agenda 21 lokalean hiritarren parte hartzea sustatzea.
- 78** Ingurumenerako Ordenantza egitea eta onartzea, horren ezarpen sektorial guztiak kontuan hartuta. Zarata, ziklomotorrak eta beste ibilgailuak arautzeko Ordenantza eraginkortasunez aplikatzeko hobekuntza egitea. Beharrezkoa bada, ingurumen-irizpideetarako udal arauak berriztatzea eta egokitzea, horien eragina eta ondorioa hobea izan dadin, pertsonentzako egokia den ingurumena zaintzeko eta bermatzeko.



- 79** Hiritarren aisialdirako den gune batean, udal zabortegia ixteko eta zigilatze aldatze-prozesua bultzatzea.
- 80** Behin itxita, ingurugiroa ezagutzeko zentroa jartzea, zigilatu arte burutu den prozesua zein den jakiteko.
- 81** Ibaiak etengabe garbitzeko programarekin jarraitzea.
- 82** Hondakinatarako eduki-ontziak lurperatzeko neurrien azterlana egitea, eta onartuz gero, neurriok ezartzea. Papera, kartoia eta plastikoa biltzen dituzten eduki-ontzitik hasiko da.
- 83** Getxon hondakin pneumatikoak biltzeko sistemaren aukerak, abantailak eta desabantailak aztertze lana egitea.
- 84** Egiten duen jardunean (salerosketetan eta hornikuntzan etab.), Udalak berak ingurumenaren aldeko kudeaketa egiteko konpromiso sendoa hartzea.
- 85** Udalak energia-eraginkortasun arloan egin dituen politiken aldeko bultzada egitea.

HIRITARREN PARTE- HARTZEA.

Gure proposamenean hiritarren parte-hartzea sustatzeko jarrera erakutsiko dugu eta horrek **Hiritarrek parte hartzeko Plana** egiteko prozesuan izango du bere ezarpen praktikoa. Plan horren ardatz nagusiek helburu hauek izango dituzte:

- 86** Esparru batzuetan -Garapenerako lankidetzak, Gazteak, Ingurumena, Euskara etab.- eratuta dauden foroak eta lantalde sektorialak bultzatu.
- 87** Elkarrekiko harremanerako formula hori eragile sozialekin ere erabili, beste esparru batzuetan, adibidez, hirigintza, kultura etab.
- 88** Bere funtzionamendua sistematizatu eta definitu, proposamen zehatzak Udaleko gobernu organoetara eraman ahal izateko.
- 89** Udalerriko harreman sarean oinarritutako parte-hartze formula orokor bat definitu eta martxan jarri. Foroen alde sektorialaren gainetik egonda, udalerriko arazo orokorrei aurre egin diezaien.

- 90** Hiritarrekiko elkarreragin etengabea sustatu:
- Urtero asebetetzeari buruzko inkestak eginez, esparru guztietan egin den udal kudeaketari buruzko iritzia jasotzeko.
 - Ohartarazpenak, Kexak eta iradokizunak programa bultzatuz, eta hiritarrei konpromiso zehatzez erantzunez.
 - Hiritarrei euren iritziak, iradokizunak eta kritikak egiteko aukera emanez, hiriko proiektu urbanistikoei buruz. Horretarako proiektuei buruzko erakusketa publikoak eginez, beharrezkoa izanez gero inplikaturako auzokideek sortutako lantaldeak eratuz etab.
 - Udalaren jarduera urbanistiko garrantzitsuetan, arazo baten eraginpean dauden interes-taldeekin zuzenean lan eginez. (Adibidez: guraso, zaintzaile, ume, nagusi eta abarrek., plazak eratu eta berriztatze orduan)
 - Auzo guztietan, hiritarrei informazioa emateko panelak jarritz, euren iritzi eta komentarioak eman ditzaten.
 - Udaletxean, zinegotzi guztiekin nahiz alkatearekin, ate irekiak dituen politika eginez.

- 91** Hiritarrekiko komunikazioa sendotu eta hobetu.
- Getxoberri berria, hiritarrentzako informazio praktiko gehiago eta hobe duena eta udalerrian oinarrituago duen oinarria duena.
 - Udalaren web orria bultzatu eta berriro egituratu, on line kudeaketa gehiago egin ahal izateko eta hiritarrei informazio praktiko eta interesgarria transmititzeko.
 - Hiritarrekiko komunikaziorako bide berriak jarri (SMS, informazio-panelak, sektorekako posta elektronikoa etab.)
 - Gure auzoetan Hiritarrentzako arreta bulegoak bultzatu, zerbitzu hobe nahiz informazio gehiago emanez eta arratsaldez ere zabalik edukiz.

UMEAK ETA GAZTEAK

UMEAK


- 92** Aisialdi programa hezigarria: 5-11 urteko umeentzako ludotekak Areeta-Erromon (Eskolen plazan) eta Algorta-Andra Marin (Aita Felix de la Virgen)
- 93** Getxon Haurreskolak. 0-3 urteko umeentzako gelak Inazio deuna eskola publikoan.
- 94** Getxoko irakaskuntzako sare publikoan dauden eskolak eta ikastolekiko lankidetzak, bertako instalazioak zaintzeko, zinegotzietatik zentroetako eskola batzordeetan parte hartuz.



95 Getxo Kirolak instalazioetan ume eta familientzako espazioak jarritz (Fadurako lehengo kafetegia eta Fadurako garagardotegia eraberrituz etab.).

96 Heziketarako programak eta eskolaz kanpokoak, eskolekin eta ikastolekin lankidetzan. Honelako programentzako laguntzak: ingurumen heziketa, gurasoen eskola, eskola antzerkia, euskal dantzak, euskal abes-
tiak, bide-hezkuntza etab.

97 Gure umeen artean kirola sustatzeko programak: kirolanitza GEekin eta udalerriko kirol klubekin lankidetzan.



- 98** Oporraldietan udalerrian gure umeentzako jarduerak, programak, udalekuak eta egonaldiak antolatzen dituzten elkarteekiko eta ekimenekiko (Bapiruke, Scout taldeak, kirol taldeak etab.) lankidetzak eta babesa.
- 99** Getxo Kirolak udan ume eta nerabeentzako antolatutako programa, ikastaro eta jardueren bultzadak
- 100** Gure plazetan adin ezberdinetako umeentzat egokituta, generazio berriko kolunpio berriak jarri, aldika.
- 101** GKEkin lankidetzan eskola eta ikastolekin batera ekimenak garatu, laguntza behar duten herrialdeekiko sentsibilizazio eta solidaritatea sustatzeko.
- 102** Kultur Etxeak umeentzako garatzen dituen ekimenak (Umeentzako zine jaialdia, Letrak oporretan etab,) bultzatu.
- 103** Andrés Isasi Udal Musika Eskola. Musika irakaskuntza gure umeentzako. Eskolaren kudeaketa hobetzeko bultzada eta Algortan (Getxo Antzokiko instalazioetan) Eskolaren ordezkari berriaren proiektua.

GAZTEAK

- 104** Udalak onartutako Getxoko Plan Gaztea eguneratzea eta garatzea.
- 105** Gazteentzako espezifikoak diren azpiegitura berriak jartzea: Gaztelekuak Algortan (Urgull egoitzan) eta Erromo-Areetan.
- 106** Plan Gaztearen oinarritzko programei bultzada berria ematea:

Prestakuntza programa:

- Tangora Etxeko Gazteentzako informazio bulegoak egiten duen lana garatuz eta hobetuz. Udalerrian zehar zabalduz.
- Informazioa zentrotik institutuetan eta gazteak elkartzeko puntuetan batzeko prozesua osatuz (Informazio panelak, SMSen bidezko komunikazioa)
- Informazioari, komunikazioari eta iragarkiei -gazteen arteko eta gazteentzako- buruzko home espezifikoa bat jarri udalaren web orrian.



Aisialdi hezigarrietarako programa

- Gazteentzako interesgarri diren ikastaro eta tailerren eskaintza sendotuz.
- Kultur Etxetik gazteentzako eskaintza kultural erakargarria osatzeko lan eginez (Kafe Antzokiaren proiektua, musika, kontzertuak, jaialdi berriak, Kimikiaren aretoa, Getxoarte etab.)

Sustapenerako programa:

- Gazteentzako elkarte getxoztarrentzat dirulaguntzak emateko deialdi espezifikoak bultzatuz.
- Getxon gazteentzako interesa duten proiektuak eta ekimenak burutzeko ezohiko dirulaguntzak bultzatuz eta zainduz.
- Elkarteen barruan ez dauden gazte getxoztarrek aurkeztutako proiektuak burutzeko dirulaguntzak bultzatuz eta zainduz.
- Gazte zerbitzuak eta udalerriko elkarreek -gazteek eraturakoak edo gazteentzako lan egiten dutenak- eraturako lan-taldeak sustatuz.
- Gazteentzako interesgarriak izan daitezkeen ekimenak -Gazte-irudiak, Gazteshowa izan diren bezala- sortzea sustatuz.
- Gazteentzako politikan sartuta dauden arlo eta zerbitzu ezberdinen artean elkarren ondoan egindako lana bultzatuz (euskara, kirolak, kultura, hirigintza etab.)

Burujabetzearen aldeko programa:

- Gazteleku berriak jarriz: Algorta -Andra Mari eta Erromo-Areeta. Erreferentzia eta elkargune izango dira aisialdi jarduerak, gazteentzako aholkularitza, prestakuntza, tailerrak eta abar garatzeko.

- 107** Espazio publikoetan gazteentzako aisialdi hornidurak jartzea (kirol-saskiak, bidegorriak etab.)
- 108** Kirola egiteko instalazio berriak jartzeaz azterlana egin, eta onartzeko gero, jartzea (skaterako pista estalia, BTT zentroa eta Bike Park).
- 109** Gazteek etxebizitza eskuratzeko arazoari aurre egiteko politika eraginkorrek garatzea eta horren aldeko bultzada sendoa egitea.
- 110** Gazteek enplegarritasuna areagotzearen alde lan egitea, Udaleko Enplegurako zentroak bultzatutako politiken bidez, Eusko Jaurlaritzarekin eta Bizkaiko Foru Aldundiarekin lankidetzan.

TEKNOLOGIA BERRIAK

- 111** Administrazio elektronikoa bultzatzea. Horrek aukera emango die hiritarrei udal zerbitzuak errazago, sinpleago eta erosoago erabiltzeko.
- 112** Udalaren web orria berregituratzea eta bultzatzea, web bidez udal kudeaketa gehiago egiteko, getxoztarrentzat informazio interesgarri eta praktikoa emateko eta udalerrira kanporantz sustatzeko.
- 113** Udalerrian wifi guneak jartzeaz azterlana egitea eta jartzea (Kultur Etxeak eta gazteek ikasteko lekuetan)
- 114** Eusko Jaurlaritzaren politikekin lankidetzan aritzea, teknologia berrien prestakuntzan.
- 115** Udalerriz kanpoko foru eta nazio erakundeekin lankidetzan Getxoren Digitalaren alde egitea, udalerrian teknologia berriak sustatzeko, tarte digitala gainditzeko, helburu sozialetan ezartzeko etab.

KUDEAKETAN BIKAINTRASUNA (UDALETXEA)

- 116** Behin zilarrezko Q-a lortuta, muga garrantzitsu hori gainditzeko lan egingo dugu Urrezko Q-a lortzearen eta udalerrian ISO egiaztagiriak ezartzen jarraitzearen. Horrek denak duen xede nagusia kudeaketa hobe bat egitea da, eta ondorioz, hiritarrei zerbitzu hobeak ematea.
- 117** Arloka lan egiteko dinamikak gaindituko duen prozesu-kudeaketaren aldeko bultzada sendoa egitea.
- 118** Guztientzako politikak (gazteak, euskara, aukera berdintasuna, immigrazioa etab.) elkarrekin eta koordinatuta garatzearen aldeko bultzada sendoa egitea.
- 119** Udaletxeko langileen artean aldi baterako lana gutxitzea.
- 120** Ondo egindako lana onartzeko eta saritzeko politikak ezartzea.

HIRI-SEGURTASUNA

- 121** Udaltzaingoaren Komisaldegia birgaitzeko prozesua amaitzea. Horrela, gure udaltzainek zerbitzu hobe emateko instalazio gehiago eta hobeak jarriko dira.



- 122** Udaltzaingoak hiritarrei zerbitzu hobea eta hurbilagoa ematearren, kudeaketa hobetzeko neurriak ezartzea, hala nola:
- Udaltzaingoko prozesuetan ere ISO egiaztagiria eman.
 - Auzozainek (auzoko poliziak) emandako zerbitzua optimizatu eta hobetu.
 - Teknologia berriak erabili, hiritarren zerbitzurako (salaketak, kexak eta iradokizunak ere e-mailez egin)
 - Trafikoa antolatzeke eta hobetzeko mugikortasun agenteak jarri, etab.
- 123** Babes zibileko zerbitzua bultzatzea, udalerrri seguruago baten alde lan egiteko, istripuen prebentziorako kontzientziazio kanpainak garatuz, ekitaldi publiko eta pribatuetan behaketa-lanak eginez etab.